



Izenburua: **Zerria**

Egilea: **Patxi Zubizarreta**

Ilustratzailea: Antton Olariaga

Bilduma: Bioleta Saila, 15

ISBN: 978-84-9109-788-4

Salneurria: 16,00

## 1. Liburua, inuksuit-a eta gazteak

Ipar Poloan, ehiztari inuitak tundra amaigabeetan urruntzen direnean, harri biribilak eta granito zatiak bildu, eta giza itxurako mugarri handiak eraikitzen dituzte: *inuksuit*-ak dira eta, distantzian desagertu baino lehen, beste inuksuit bat eraikiko dute, beste orientazio puntu bat, bereziki elur-izotzetan herrixkara onik itzuli ahal izateko. Norberaren heziketa sentimentalean ere badira mugarri gertatzen diren liburuak, hala nola *Altxor uhartea* edo *Errebeldeak*, mundua hobeki ulertzen eta geure burua kokatzen laguntzen digutenak.

## 2. Zerria

Bereket glaziologoa da eta Ipar Poloan ez, baina Alpeetako glaziarretan ari da munduaren ADNaren bila. Halako batean, izotz urtuak bi gorpu azalerratu ditu eta horrek denboran atzera eraman du —XIX. mendera—, eta urrunera —Zuberora—, hotzak primeran kontserbatutako bi pertsona haien historia eta ADN ikertzera. Albiste benetako horrek, ustekabeen, zerri batek eragindako infantizidio bat deskubritzeraino eramango du. Eta zerriaren irudi hori, George Orwellen bidetik, galdera ikur bihurtzen da: gizakion jokabidea ikusirik —kideekin, naturarekin, bere buruarekin—, gaur egun ba ote dago alderik animalien eta gizakion artean, ba ote dago mundua hobetzerik, etorkizuna esperantzaz ikusterik...

## 3. Poza

Liburu hau gaur egungo gazteentzat inuksuit izateko gogoarekin sortu nuen, ni neu inuiten antzera abiatu nintzen idazketaren tundran eta elurretan barrena, jakin gabe nora nindoan, galdurik ote nenbilen, batez ere kontuan izanik gure literaturan beharbada gazte arloan dagoela hutsunerik nabarmenena. Orain dela 30 urte (!) Lizardi Saria eskurarazi zidan *Matias Ploffen erabakiak* ipuinean bezala, abentura gogo berberarekin abiatu nintzen eta poztasun handia hartu dut berriro ere epaimahaiak lan hau inuksuit eta mugarri izendatu duelako, hain zuzen ere Lizardi Sariak 40 urte betetzen dituen data seinalatu honetan.

#### 4. Kontrazalerako testua

Alpeetako gailurretan, Bereketek Gasparden albisteak jaso zuen: 'Gorpu batzuk deskubritu ditut, bi gutxienez, Tsanfleuron glaziarrean'. Albisteak gazte glaziologoa astindu eta asaldatu zuen, eta ez zuen onik izan historiaren jatorria eta egia lazgarria ezagutu arte, Pirinioen bihotzean.

Inuitek, otsoa harrapatzeko, labanaren heldulekua izotzetan ezkutatu, eta koipez igurzten dute kanpoan geratutako aho zorrotza. Eta otso gosekila iritsi da eta, oharkabea, irrikaz milikatu du koipea, bere odolarekin eta mihi zatiekin batera. Halatsu irentsiko du irakurleak infantizidio baten kontakizuna, beharbada jakin gabe gizateriaren historia irakurtzen ari dela, menturaz ohartu gabe gizakiaren eta piztiaren arteko muga lausoan dabilela: *homo hominis lupus?*

Irakurle fina agian gero konturatuko da antzinako historia hau ezin garaikideagoa dela eta, salbamena lortu ahal izateko, aurrea izugarria zaigunari egin behar diogula aurre, geure buruari berari ukatzen diogunari.

Patxi Zubizarreta  
Donostia, 2022ko martxoak 23

**Patxi Zubizarretak** (1964) Ordizia du jaioterri eta Gasteiz sorleku. Haren lanetan erroak nabarmentzen dira, hala nola *1948ko uda* obran edo *Hiru gutun Iruñetik* nobelan. Baina hegoak ere nabariak dira, batez ere migrazioak eta mundu arabiarra guregana hurbiltzeko orduan, esate baterako *Usoa* ipuinean edo *Eztia eta ospina* nobelan. Hark egindako *Exupéryren Printze Txikia* edo Eric-Emmanuel Schmitt-en *Ibrahim jauna eta Koranaren loreak* itzulpenetan ere ageri dira erroak eta hegoak. Goraipamen ugariaren artean, Lizardi Sariaren XL. edizioa irabazi du Zerria lanarekin. Generoak eta diziplinak bateratuz, hainbat ikuskizun eta performance eskaintzen jarraitzen du bai gurean bai atzerrian.

## XABIER LIZARDI LITERATURA SARIA - 40. EDIZIOA

### Epaimahaiaren oharra

Lizardi Sariaren epaimahaiak (Castillo Suarez, Kati Olaizola eta Alex Gurrutxaga) edizio honetan aurkeztu diren lan guztiak irakurri eta aztertuta, erabaki du Zerria izeneko narrazioa saritzea.

Narrazioa Patxi Zubizarreta Dorronsorok (Ordizia, 1964) idatzia da. Zubizarretak obra zabala du haur eta gazte literaturaren esparruan, eta beronen maila errekonozitzen duten sari ugari jaso ditu; tartean, Euskadi Saria (hiru bider), Ala Delta Saria, eta baita, 1991n, Lizardi Saria bera ere, Matias Ploff-en erabakiak lanagatik.

Zerria narrazioak abenturazko eta intrigazko literaturaren osagaiak ditu. Protagonista nagusia Bereket da, sortzez etiopiarra den emakumezko bat, ofizioz glaziologoa. Ustekabean, gorpu batzuk agertu dira Suitzako Tsanfleuron glaziarrean, eta horien arrastoari segitzea erabaki du Bereketek. Izotzak aspaldiko gertakarien arrastoa gorde du, eta horiek pixkanaka aletuz joango gara gaur egungo ikertzailearen bidez. Ikerketak hara eta hona eramango ditu bai protagonista eta baita irakurlea ere, bilaketa eta bidaia uztartuz.

Narrazioa ongi bereizitako eta elkarren artean garbi lotutako hiru atal nagusitan banatua dago. Lehenak Alpeetara eramango gaitu, glaziarren mundura; bigarrenak Pirinioetara eta Ipar Euskal Herrira; eta azkenak, aspaldiko testu baten bidez, Parisera. Ikerketan zehar puntu gogor eta gordinak ere azaleratzen dira, eta sakon-sakonean, gizatasunaren eta animaltasunaren inguruko gogoeta bat planteatzen zaigu.

Estilistikoki, testu dotorea da Zerria: kapitulu biribilak eta ederki josiak, irudi indartsuak, deskribapen interesgarriak... Eta, hori guztia, idazkera jori bezain gustagarrian emana.

Azkenik, literatur maila azpimarragarria eskaintzeaz gain, testuak aukera ematen du askotariko gaiak jorrazteko, interes handia izan dezaketenak 16 urtetik gorako gazteekin lantzeko: glaziarren ikerketa, gorpuen kontserbazioa, Junes Cazenave-Harigileren obra, Kanadako Nenana Ice Classic delakoa, eta abar luzea.

Epaimahaia  
(Castillo Suarez, Kati Olaizola, Alex Gurrutxaga)

Zarautzen, 2021eko irailaren 13an